



# **PuntuEUS Behatokia**

**Euskal Herriko Interneten egoeraren azterketa**

## Aurkibidea

1. AURKEZPENA.....	3
2. PUNTUEUS BEHATOKIA .....	4
2.1. Neurketaren oinarria .....	4
2.2. Metodologia .....	5
2.3. Informazio-iturriak .....	5
2.4. Argitalpena .....	6
2.5. Lankidetzak .....	6
3. .EUS DOMEINUAREN EGOERA.....	7
3.1. Domeinuaren banaketa geografikoa .....	7
3.2. Domeinuaren banaketa tipologikoa .....	8
3.3. Euskarazko domeinu-parkean barneratzea .....	9
3.4. Hizkuntza nagusien banaketa .....	10
3.5. .EUS domeinu-izenen dentsitatea Euskal Herrian.....	11
3.6. Domeinuaren kalitatea .....	12
3.7. Domeinuaren kalitatea SEO aldetik .....	13
4. INTERNET EUSKAL HERRIAN.....	14
4.1. TLD nagusien banaketa .....	14
4.2. Web gune kopurua .....	15
4.3. Interneteko domeinuen dentsitatea Euskal Herrian.....	16
5. EUSKARA EUSKAL HERRIKO INTERNETEN.....	17
5.1. TLD nagusietan euskararen presentzia .....	17
5.2. Euskara duten web guneen dentsitatea Euskal Herrian .....	18
5.3. Twitter sarean euskararen presentzia .....	19
5.4. Wikipedian euskararen presentzia.....	20
5.5. Euskarazko hedabideen sareko eboluzioa.....	21
6. LEGE OHARRA .....	22
6.1. Datuen erabilera baimenak .....	22
6.2. PuntuEUS Fundazioa .....	22

## **1. AURKEZPENA**

Zazpi urteko lanaren ondoren, 2014an .EUS domeinua errealitate bihurtu zen. Aitzindarien fase arrakastatsu baten ondoren, gure domeinuaren abiarazte-aldiak aurreikuspenak gainditu zituen. Horrela, 2014ko abenduaren 31an 2.600 domeinuzen erregistratuta genituen. Arrakasta bai, baina zenbatekoa?

Orain arte ez genuen daturik .EUS domeinuaren arrakasta neurtzeko, ezta euskararen osasun digitala neurtzeko ere. Euskarak Interneten osasun ona duela esan izan dugu askotan, komunitate digital osasuntsua duela, hizkuntza nagusien artean ongi kokatzen dela, baina hori baieztatzeko ditugun datuak oso gutxi izan dira orain arte. Ez dugu inoiz neurtu euskararen presentzia interneten, ezta Internetek berak Euskal Herrian duen presentzia ere, zenbat web gune ditugun, eta horietako zenbatek duten edukia euskaraz. Horren ondorioz, ez genekien .EUS domeinuaren barneratze-maila zenbatekoa izan behar zen.

PuntuEUS Behatokia hutsune hau betetzera dator, euskarak Interneten duen presentzia indartzeko behar diren estrategia eta politikak hartzeko garaian beharrezko den tresna baliagarria eskainiz.


## 2. PUNTUEUS BEHATOKIA

### 2.1. Neurketaren oinarria

Euskal hizkuntza eta kulturak Interneten duten presentzia aztertzen du PuntuEUS Behatokiak, modu kuantitatibo zein kualitatiboan, horretarako hiru alor neurtuz:

1. **.EUS domeinuen egoera:** Domeinu kopurua eta honen banaketa lurraldeka, erakunde motaren arabera, etab.
2. **Internet Euskal Herrian:** TLD nagusiek Euskal Herrian erregistratutako domeinu-izen kopurua eta joerak.
3. **Euskararen egoera Interneten:** Euskarak Interneten duen presentzia, TLD nagusietan eta .EUS domeinuan. Horrez gain Twitter, Wikipedia eta euskal hedabideen presentziaren neurketak.

Zehazki honako egitura irudikatu dugu:



## 2.2. Metodologia

Domeinu guztietako euskarazko, gaztelaniazko, ingelesezko eta frantsesezko edukiak zenbatzeko bi estrategiatz baliatu gara:

- **Domeinu mailako *crawlinga*:** Domeinu bakoitzeko edukiak deskargatu, testuak erauzi, eta bukaeran beren hizkuntza automatikoki identifikatzen da hizkuntza-eredu estatistikoaren bidez. %93koko zehaztasun-maila lortzen da hizkuntzaren araberako edukien kontaketa dagokienez. Domeinuen prozesaketa paraleloan burutzen bada ere, estrategia honek trafiko handia eragin dezake web-gune handiak prozesatzen direnean. Hori dela eta, estrategia hau web-gune txikiei soilik aplikatzen diegu.
- **Domeinu mailako *web-bilaketak*:** web-bilatzaileetan (adib., *Google*, *Bing*) oinarritutako estrategia hau tamaina handiko web-guneak prozesatzeko erabili dugu, *crawling* prozesua baino askoz trafiko gutxiago eragiten duelako. Hizkuntza bakoitzeko hitz adierazgarrienez osatutako bilaketa bat domeinu bakoitzaren gainean eginez hizkuntza horretako edukien kopurua estimatzen dugu. Hizkuntzaren araberako edukiak kontatzeko estrategiak honek %90eko zehaztasun-maila ematen digu.

## 2.3. Informazio-iturriak

Proiekturako erabili diren erreferentziak eta informazio-iturriak:

- <https://ntldstats.com/country/ES>
- <http://www.statdns.com/>
- <http://www.webhosting.info/>
- <http://www.eurid.eu/>
- <https://centr.org>
- <https://www.afnic.fr>
- <https://globerunner.com/top-10-geographic-new-gtld-extensions/>
- <https://globerunner.com/top-20-best-new-gtlds-based-on-quality/>
- <http://www.umap.eus>
- <http://www.hekimen.eus/behategia/>
- <http://fundacio.cat/es/observatorio/domini-cat>
- <http://www.dominios.es/dominios/es/todo-lo-que-necesitas-saber/estadisticas>

## 2.4. Argitalpena

Euskararen Interneteko Behatokiak ez du une bateko proiektua izan behar, proiektu jarraitua baizik. Informazioaren eguneratze-tasa aztertzea komeni da, baina gutxienez urtean behin berritzea aurreikusten dugu.

Informazioaren argitalpenerako hainbat bide aurreikusten dira:

- Digitalki <http://behatokia.domeinuak.eus> helbidean datuak 4 hizkuntzatan argitaratuz
- Txosten eta infografia bidez web-ean eskuragarri
- Aurkezpen publikoen bidez:
  - Prentsaurrekoa 2015eko abenduaren 2an
  - Datuen aurkezpenak ekitaldi eta hitzaldietan

## 2.5. Lankidetzak

Interneten Euskararen Behatokiaren proiektua PuntuEUS Fundazioaren ekimena da. Dena dela, garbi dugu horrelako proiektu bat gauzatu ahal izateko beste eragile batzuekin lankidetzak ezinbestekoa dela. Honako eragileek hartu dute parte txosten honen prestaketan:

- Euskararen edukiaren azterketan Elhuyar Fundazioaren lankidetzak izan dugu, alderdi teknologikoaren ekarpena eginez.
- Domeinuen dentsitate-mapak garatu ahal izateko Gaindegia-ren lankidetzak izan dugu, guk emandako datuetan oinarrituta mapen irudikatzea eginez.
- Datuen analisia egin eta txostenaren prestaketan Beñat Garaio soziolinguistaren laguntza izan dugu.

Aurrera begira, gure nahia litzateke eragile gehiagorekin lan egin ahal izatea, bereziki alderdi metodologikoaren definizio eta datuen analisisira begira.


Proiektu honek Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzaren diru-laguntza jaso du Interneteko argitalpenerako

### 3. .EUS DOMEINUAREN EGOERA

#### 3.1. Domeinuaren banaketa geografikoa

.EUS domeinua ez dagokio eremu geografiko zehatz bati, komunitate bati baizik. Ondorioz, mundu guztian zabaltzen den domeinua da, erregistroen %10a Euskal Herrikan egin direlarik orain arte. Horrek adierazten du domeinuaren onarpen zabalak duen garrantzia.

Euskal Herriko datuak aztertuz gero ohartzen gara domeinua Euskal Herri guztian zabaltzen dela, baina desoreka nabarmenak daude lurralde batetik bestera. Esan liteke erregistro kopuruaren banaketak lurraldeen banaketa linguistikoari erantzuten diola banaketa demografikoari baino gehiago, erregistroak nagusiki Gipuzkoa eta Bizkaian gainerako lurraldeetan baino gehiago ematen baitira.




Grafika 1: .EUS Domeinuaren banaketa geografikoa

	Gipuzkoa	Bizkaia	Araba	Nafarroa	Iparraldea	Kanpokoak
<b>Domeinukopurua</b>	1847	1280	468	196	60	417

### 3.2. Domeinuaren banaketa tipologikoa

.EUS domeinua erregistratzen duten erakundeen argazkiak demostratzen du domeinuaren balioa orokorra eta anitza dela. Erregistratzaile nagusiak enpresak badira ere, .EUS domeinua erabiltzen duten erregistratzaile motaren aniztasunak adierazten du .EUSek Interneten euskal gizartea ordezkatzeko duen balioa.

Interneten ohikoa den moduan, enpresak dira .EUS domeinuaren erabiltzaile nagusiak. Hauez gain gure gizarteko gainerako segmentuak ere ikusten ditugu bertan ordezkatuta, modu zabalean: erakunde publikoak, hezkuntza eragileak, euskara eta kulturaren alorreko eragileak, norbanakoak, komunikabideak, kirol erakundeak, eta beste batzuk ere (sindikatu, alderdi politiko, etab.)



Grafika 2: .EUS Domeinuaren banaketa tipologikoa

	Enpresak	Euskara eta Kultura	Hezkuntza	Erakunde publikoak	Norbanakoak	Bestelakoak	Komunikabideak	Kirola
Domeinu-kopurua	1026	453	250	573	165	345	93	77




### 3.3. Euskarazko domeinu-parkean barneratzea

Euskal Herrian erregistratutako domeinu parke osoari erreparatuta, gaur egun erregistratuta dauden .EUS domeinu kopurua ez da handia.

Baina kontuan izanik .EUS domeinuak dituen berezitasunak, edukiaren zati bat euskaraz duten web guneak hartzen ditugu jomuga, merkatua aztertzeko garaian.

TLD nagusien artean euskara duten web guneen kopuruaren batura kontuan izanik, .EUS domeinuaren presentzia garrantzitsua dela esan daiteke, domeinuaren lehen urteari dagokionean.




Grafika 3: .EUS Domeinu kopurua euskarazko Internetekiko

	Euskarazko edukia duten domeinu-izenak	.EUS domeinu-izen kopurua
<b>Domeinu-kopurua</b>	14.459	4.236

### 3.4. Hizkuntza nagusien banaketa

.EUS domeinua erabiltzen duten web guneen artean lau hizkuntza dira nagusi: euskara, gaztelania, frantsesa eta ingelesa. Hauen arteko banaketa ondoko grafikan ikus daiteke, eta bertan nabarmentzen denez, .EUS erabiltzen duten web guneen artean euskararen erabilera da nagusi (%45) gaztelaniarekin batera (%43). Ondoren kokatuko litzateke ingelesa (%10), eta oso presentzia txikiarekin frantsesa (%0,6) eta beste hizkuntza batzuk (%1 guztira).



Grafika 4: Hizkuntza banaketa .EUS domeinua duten web guneetan

	Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Frantsesa	Besteak
<b>Hizkuntzen %</b>	%44,7	%42,8	%9,9	%0,6	%1,2

### 3.5. .EUS domeinu-izenen dentsitatea Euskal Herrian

.EUS domeinu-izenen dentsitatearen banaketa Euskal Herrian erregistroen kokapen geografikoaren arabera. Borobilek herri bakoitzean erregistratutako domeinu-kopuruaren dentsitatearen tamaina adierazten dute.



*Grafika 5: .EUS domeinu-izenen dentsitatea Euskal Herrian*


### 3.6. Domeinuaren kalitatea

As a part of Globe Runner's [New gTLD SEO Power Rankings Index](#), we gathered data from over 20,000 websites that have been actually built–or developed, on New gTLD domain names. From that list of over 20,000 websites, we have studied these websites' qualities, and pulled a lot of other interested data. We were able to find the best New gTLDs based on quality.

One of the data points that we analyzed was related to the quality of the websites built on the New gTLD domain names. What we wanted to know is which New gTLDs have been more successful in attracting quality websites to be built on their TLD.

Based on quality–mainly the Majestic.com Trust Flow factor. Here is our list of the top 20 New gTLDs with the best domain names, based on Trust Flow.

Read more <https://globerunner.com/top-20-best-new-gtlds-based-on-quality/>




Grafika 6: gTLD berrien kalitate-rankina

### 3.7. Domeinuaren kalitatea SEO aldetik

As part of Globe Runner’s efforts to watch the New gTLD extensions in regards to SEO (Search Engine Optimization) and our [SEO Power Rankings Index](#), we looked at the geographic extensions. We wanted to know which of the new domain extensions actually have live websites being developed on them. And of those developed websites, which new geographic extensions have the best websites on them. Here’s our list of the top 10 geographic New gTLD extensions.

Read more <https://globerunner.com/top-10-geographic-new-gtld-extensions/>




Grafika 7: GeoTLD berrien kalitate-rankina SEO aldetik

## 4. INTERNET EUSKAL HERRIAN

### 4.1. TLD<sup>1</sup> nagusien banaketa

Euskal Herriko Interneteko merkatu osoari begiratuta, .COM eta .ES dira TLD nagusiak, merkatuaren %82 hartuz bien artean.

Gainerako TLDek merkatu kuota txikia hartzen dute, .Euskal Herrian erregistratutako domeinu-izenen artean .EUS %2 baino ez dira.



Grafika 8: Hizkuntza banaketa .EUS domeinua duten web guneetan

	.COM	.ES	.NET	.ORG	.INFO	.EUS	.BIZ
<b>Domeinukopurua</b>	%52	%30	%8	%5	%2	%2	%1


<sup>1</sup> .FR eta .EU domeinuen datuak falta dira azterketa honetan.

## 4.2. Web gune kopurua

Euskal Herriko TLD nagusiek<sup>2</sup> erregistratutako web gune kopuruan nagusiki .COM eta .EUS nabarmentzen dira.

.COM domeinuak du nagusitasuna modu nabarmenean, 114.364 domeinu-izen erregistratuta, eta jarraian .ES legoke, 65.146 domeinu-izenekin. Hauen oso atzean gelditzen dira gainerako TLD nagusiak.

.EUS domeinuaren kasuan, 6. tokia hartzen du Euskal Herriko TLD nagusien zerrendan, .INFO domeinutik oso gertu.



Grafika 9: Euskal Herrian erregistratutako domeinu-izen kopurua

	.COM	.ES	.NET	.ORG	.INFO	.EUS	.BIZ
Domeinu-kopurua	114.364	65.146	17.226	11.608	5.177	4.236	2.020

<sup>2</sup> .FR eta .EU domeinuen datuak falta dira azterketa honetan.

### 4.3. Interneteko domeinuen dentsitatea Euskal Herrian

Interneteko TLD nagusien dentsitatearen banaketa Euskal Herrian erregistroen kokapen geografikoaren arabera. Borobilek herri bakoitzean erregistratutako domeinu-kopuruaren dentsitatearen tamaina adierazten dute.



*Grafika 10: Interneteko domeinuen dentsitatea Euskal Herrian*




## 5. EUSKARA EUSKAL HERRIKO INTERNETEN

### 5.1. TLD nagusietan euskararen presentzia

Interneteko TLD nagusietan<sup>3</sup> euskarazko edukia duten domeinu-izenen portzentaia aztertzeko garaian, nabarmen gelditzen da .EUS domeinua dela euskara gehien erabiltzen duen TLDa. Euskararen presentzia nabarmena da .EUS domeinuetan. Kasu honetan euskararik ez duten domeinu-kopurua %15ean kokatzen da eta euskarazko edukia baduten web gune kopurua %85etik gorakoa da.

Gainerako domeinuen kasuan, euskararen presentzia haien web guneetan %30aren azpitik dago kasu gehienetan. .ORG domeinuaren kasuan domeinu-izenen %31k du euskazko edukirik, eta hortik aurrera %10 eta %20 bitartean mugitzen dira TLD nagusiak.



Grafika 11: TLD nagusietan euskararen presentzia

	.COM	.NET	.ORG	.INFO	.EUS	.BIZ	GUZTIAK
<b>Domeinu-kopurua</b>	%13	%20	%31	%13	%85	%11	%16

<sup>3</sup> .ES, .FR eta .EU domeinuen datuak falta dira azterketa honetan.

## 5.2. Euskara duten web guneen dentsitatea Euskal Herrian

Euskara duten domeinuen dentsitatearen banaketa Euskal Herrian erregistroen kokapen geografikoaren arabera. Borobilek herri bakoitzean erregstatutako domeinu-izenen artean euskara dutenen dentsitatearen tamaina adierazten dute.




*Grafika 12: Euskara duten web guneen dentsitatea Euskal Herrian*

### 5.3. Twitter sarean euskararen presentzia

Erabiltzaileen eskariz, 2012an Twitter-ek euskarazko bertsioa argitaratu zuen eta harrez gero Twitter-en interfazea euskaraz erabiltzeko aukera dago.

UMAP Twitterlari euskaldunen jarduna jaso eta filtratzen duen webgunea da. Honen arabera azken hilabetean, **irailean**, orotara euskara erabiltzen duten 6.715 erabiltzaile aktibo izan dira. Idatzitako txioei dagokionez, komunitateko erabiltzaile aktibo horiek 411.352 txio bidali dituzte (%52,06 euskaraz). Egunero, batz bestea, 7.138,37 euskarazko txio argitaratu dira.

Informazio gehiago: [www.umap.eus](http://www.umap.eus)



Grafika 13: Hizkuntzen erabilera twitterlari euskaldunen artean

	Euskara	Gaztelania	Ingelesa	Frantsesa	Besteak
<b>Hizkuntzen %</b>	%52	%32	%6	%1	%9
<b>Txio kopurua</b>	214.612	131.644	3.711	23-281	38-554

#### **5.4. Wikipedian euskararen presentzia**

Lorem ipsum dolor sit amet, consectetur adipiscing elit. Nunc mollis libero nec tortor tempus lacinia. Donec id odio a tortor consequat blandit. Donec ut ullamcorper velit. Vivamus ultricies libero erat, sed tristique libero egestas vel. Quisque consequat tincidunt diam, id aliquam elit ullamcorper eget. In finibus ante id arcu vulputate, a tincidunt dui molestie. Duis viverra dui nibh, at sagittis risus consequat id. Proin nec mattis odio.

## 5.5. Euskarazko hedabideen sareko eboluzioa

Euskal hedabide ez publikoetako Interneteko jarduna gora doa etengabe eta %60 igo da azken bi urteotan. Datu hauek Hekimen elkarteak martxan jarri duen Hekimen Analytics proiektuak bildu ditu. Hekimen Analytics euskal hedabideen sareko jarduna ezagutzeko eta aztertzeko tresna da. Euskal Herri osoko eta euskarri guztietako berrogeita sei webguneren emaitzak jasotzen dira.

Azken bi urteotako joerak ikusita, nabaria da euskal hedabideen webguneko sesioak goraka doazela etengabe, batez ere iazko udazkenetik hona. Azken hilabeteetan, esaterako, hilero milioi eta erdi sesio eta 4 milioi orrialde baino gehiagoko trafikoa dute, guztira, aztertutako webgunek.

Aurtengo lehen seihilekoaren datuei begiratuta, berriz, esan behar da igoera are handiagoa aurreikusten dela aurten, aurreko urteko %15 inguruko igoeren ordeztu %40 inguruko igoera bat iragartzen baitute datuek. 2015eko maiatzean bildu zuten Hekimeneko webgunek inoizko bisita gehien: 1.810.837 hain zuzen ere.



## **6. LEGE OHARRA**

PuntuEUS Fundazioa da txosten honen egilea, eta bere titulartasunpekoak dira bertan jasotako eduki ezberdinak, erreferentziak, testuak, argazkiak, irudiak, logotipoak, bai eta txostenaren diseinua eta egitura ere.

### **6.1. Datuen erabilera baimenak**

Titulartasun horren ondorioz, PuntuEUS Fundazioak erabiltzaileari Creative Commons izeneko baimena eskaintzen dio. Eskainitako baimen-mota, zehatz esateko, hauxe da: Aitortzea – Merkataritzakoa ez- Partekatu Berdin .3.0 Espainia. Baimenak bere barruan hartzen ditu aurreko puntuan aipatu eduki ezberdin guztiak.

Baimenak ez du bere barruan hartzen txosten honetako edukiak merkataritzako helburuekin erabiltzea. Eduki horiek merkataritzako helburuetarako erabiltzea baimenduta egon dadin, aurretiaz hitzarmen egokia sinatu behar da PuntuEUS Fundazioarekin.

### **6.2. PuntuEUS Fundazioa**

.EUS domeinua, euskara eta euskal kulturaren komunitatearen Interneteko lehen mailako domeinua da. Bere helburua euskara eta euskal kultura sustatu eta euskara eta euskal kulturaren komunitatea kohesionatzea da. .EUS, hortaz, tresna bat da, euskara beste hizkuntzen mailan kokatzen duena, euskararen normalizazioan lagunduko duena eta euskararen herriari nazioarteko aitortza eskaintzen diona.

.EUS domeinuaren proiektuak 2007an eman zituen lehen urratsak eta 2008an PuntuEUS Elkarteak eratu zen, euskararen eta euskal kulturaren komunitatea egituratzeko helburuarekin.

2008tik 2012ra zabalitze prozesuan egon da eta guztira 58 elkarte eta erakundek osatzen dute PuntuEUS Elkarteak. 2012an, PuntuEUS Elkarteak PuntuEUS Fundazioa sortu zuen eta azken hau izan zen ICANNen aurrean 2012ko maiatzean .EUS domeinuaren eskaria aurkeztu zuena. Eskari hori ebaluatu eta 2013ko ekainaren 14an jakin genuen .EUS domeinua onartua izan zela. Martxan jartzeko beharrezko lanak bukatu ondoren, 2014ko udaberrietik ikusgarria da .EUS domeinua Interneten, baina 2014ko abenduaren 3an zabaldu zen erabiltzaile guztientzat. Une honetan 4.300 domeinu-izen daude erregistratuta.



PuntuEUS Fundazioa, 2015eko abendua